

IRITZI BIZKARROIAK

Badakit, ziurtasun bila zabilta.
Ziurtasuna da zalantzaren bizitza,
zalantza eza da benetako konfiantza.
Konfiantza behin baino ez da galtzen
behin galduta, jada ez da gehiago existitzen;
beraz, ez da inoiz gehiago desagertzen.
Tira, tira, ez zaitetz esaldi horretan geratu
idazlana ez baita hor amaitu.

“Ez dio axola jendeak zer dioen”.
Besteei aholkuak ematea baino gauza errazagorik?
Besteen esanek beldur berriak sortzen dizkigute.
Besteen esanak mugatu egiten gaituzte,
askatasun osoa kentzen digute,
lepotik gogor estutzen gaituzte,
gure ipar orratzaren norabidea aldatzen dute.
Besteek zer pentsatuko ote dute?

Gauza berrien beldur zara.
Aldaketei ateak ixten ibiltzen zara.
Iritzi ezberdinen beldur zara.
Horien arabera mugitzen zara.
Lotsatu eta oztopoak jartzen dituzu.
Erabakiak iritzien arabera hartzen dituzu.
Teorikoki erraza dirudi saihesteak,
praktikoki ematen dizkizu buruhausteak.

Belarri batetik sartu eta bestetik atera.
Hasiera aurrera eta gero atzera
bidean galduriko turisten antzera,
burua kolpatzen dute goitik behera.
Pauso berri bat emateko zain zaude
batzuetan nahita, besteetan nahigabe
ezin dituzu hitzak burutik atera
hauek bidaia guztia gauzatu arte.

Gizarte kritikoan bizi gara,
gauzak ezin egin gure nahi erara.
Mundu honetan dena ote da txuri edo beltz?
Ez horixe, margotu dezagun bizitza kolorez,
gorri, gris arrosa edo morez.
Has zaitetz zure ostadarra margotzen,
zuk bakar-bakarrik erabakitzen,
zure kolorezko ostarra bizitzen.

Gure odola xurgatzen dute zorriek,
Gure ideiak bideratzen dituzte iritziek.

Baina hau dena zergatik ote?
Bizkarroien erreinuan denok gara arlote.
Besteen onespina da beharrezkoa
nahiz eta ez izan bidezkoa.
Iruditzen zaigulako ardi taldean
ardi beltza hobe dela atzealdean.

Ulertzen zaitut, beti da berdina.
Saiatu arren ezin duzu lortu,
Ezin dituzu beldurrak uxatu.
Ezin gero arte hori agur bilakatu.
Ezin askatasuna berreskuratu,
ezin menpekotasuna ezabatu.
Ez zaitez gehiago kezkatu.
Laguntza eskatzea ez da bekatu.

Ni jada nazkatu naiz horretaz,
besteek pentsatuko dutenaren beldur izateaz.
Azkenean iritsi da nire ordua.
Konfiantza hurbildu zait ingurura.
Ahaztuko dut besteekiko parasitismoa,
badator nigana anarkismoa.
Orain lagun zure txanda da,
bizi bizitza benetan laburra baita.

EZKI